Bestelako Xedapenak

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

2056

EBAZPENA, 2010eko martxoaren 11koa, Garapen Lankidetzarako zuzendariarena, Garapena Sustatzeko Lankidetza Fondoaren kargurako programetarako laguntzak lortzeko Mundukide Fundazioa kreditatzen duena. Adierazitako laguntzak apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuak arautzen ditu.

Adierazitako Dekretuaren 10. artikuluak ezartzen du programetarako diru-laguntza lortzeko nahitaezkoa dela 12., 13., 14., 15., eta 16.1 artikuluetan ezarritako baldintzak eta ahalmenak kreditatzeko aldeko eta indarreko ebazpena ematea. Kreditatzeko formularioa dekretu arautzailearen eranskinean dago.

Dekretuaren 11. artikuluak ezartzen du Garapen Lankidetzarako zuzendariak ebatziko duela kreditatze-eskaera hori, eta 36 hilabeteko indarraldia izango duela argitaratzen denetik hasita.

2010eko martxoaren 2an, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzara bidalitako idazkiaren bitartez, Garapena Sustatzeko Lankidetza Fondoaren kargurako programetarako laguntzak lortzeko kreditatze-eskaera egin zuen Mundukide Fundazioak.

Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak eskabide horren aldeko txostena eman du, eta horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren (GLSF) kargurako programetarako laguntzak lortzeko Mundukide Fundazioa kreditatzea, 36 hilabeteko indarraldiarekin, ebazpen hau EHAAn argitaratzen denetik hasita. Denbora-tarte horretan, Mundukide Fundazioak aukera izango du GLSFren kargurako programetarako laguntzak lortzeko deialdietara zuzenean aurkezteko, deialdi bakoitzean kreditatzeko premiarik izan gabe.

Bigarrena.– Kreditatze-indarraldian zehar, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak aukera izango du egokitzat jotzen dituen eguneratzeak eta/edo argibideak eskatzeko Mundukide Fundazioari, erakundearen administrazio-betebeharrak eta ahalmenak betetzeari dagokionez. Ikusten bada erakundeak ez duela betetzen eskatutako baldintza eta ahalmen horietakoren bat, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak ofizioz hasiera eman ahal izango dio kreditatze hori baliogabetzeko espedienteari.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

2056

RESOLUCIÓN de 11 de marzo de 2010, de la Directora de Cooperación al Desarrollo, por la que se acredita a Mundukide Fundazioa para concurrir a las ayudas a programas con cargo al Fondo de Cooperación al Desarrollo, reguladas por el Decreto 57/2007, de 3 de abril.

El artículo 10 del citado Decreto establece que, para tener acceso a la subvención de programas, es necesaria una resolución favorable y vigente de acreditación de los requisitos y capacidades establecidas en los artículos 12, 13, 14, 15 y 16.1. El formulario de acreditación consta en el anexo del Decreto regulador.

El artículo 11 establece que será el Director/a de Cooperación al Desarrollo quien resuelva dicha solicitud de acreditación, teniendo una vigencia temporal de 36 meses a partir de su publicación.

Mundukide Fundazioa, mediante escrito dirigido a la Dirección de Cooperación al Desarrollo con fecha 2 de marzo de 2010, formuló una solicitud de acreditación para concurrir a las ayudas a programas con cargo al Fondo de Cooperación al Desarrollo.

La Dirección de Cooperación al Desarrollo informa favorablemente a dicha solicitud, en vista de lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Acreditar a Mundukide Fundazioa para concurrir a las ayudas a programas con cargo al FOCAD por un período de vigencia de 36 meses a partir de la publicación en el BOPV de la presente Resolución. Durante dicho período de tiempo, Mundukide Fundazioa podrá optar directamente a las convocatorias de ayudas a programas con cargo al FOCAD, sin necesidad de acreditarse en cada una de ellas.

Segundo.– La Dirección de Cooperación podrá pedir durante el periodo de vigencia de la acreditación las actualizaciones y/o aclaraciones que estime oportunas sobre el cumplimiento de los requisitos administrativos y capacidades de Mundukide Fundazioa. Si se advirtiera que ésta dejara de cumplir alguno de dichos requisitos y capacidades exigidas, el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales podrá iniciar de oficio un expediente destinado a revocar dicha acreditación.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Gizarte Gaietako sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 11.

Garapen Lankidetzarako zuzendaria,
MARTA ARES GODOY.

Tercero.– Que contra la presente Resolución, se podrá interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Asuntos Sociales en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de marzo de 2010.

La Directora de Cooperación al Desarrollo,
MARTA ARES GODOY.